

[12]

1972 - otsaila

17







Haurrak, pertsona helduei bu  
ruz, guraso eta irakasleei buruz  
adibidez, badu errespeturik as-  
ko: beldur eta maitasunaren arte  
ko errespetua hain xuxon.

Eta orduan Haarrari, guraso  
edo irakasleak esaten duena, bes-  
te gabe ere, onartzen bait du,  
reflesio bide pertsonala ebaki  
egiten zaio. Ondorioz, jarrera be-  
rekoi batek haurra kontrolik ga-  
beko haizekeria batetara erama-  
ten duen kasuan bezain makurra  
da pertsona helduekiko errespe-  
tu tzar hori. Diferentzia bate-  
kin: norbere baitan ez-baina, goi-  
koengan finkatzen den berekoike-  
ria dela.

J. Piaget

# 2 GINTZIN - SOLASIA

Lehengo zenbakia aski berandu jendearen esku etara helduko zen susmoa badugu, argitara ere sobera berandu eman bait zen, eta beraz, banaketak ere egun multzo bat eramaten du. Maiz askotan denon errua: denek ere badugu erru apur bat. Hori horrela, goixego heldu da oraingoa. Hala ere! Ea arrastoan sartzen garen behin betiko eta hemendik aurrerakoak etortzen diren bere garaian. Baina, arestian esan dena, guztion baitan dago hori: idazle, xuxentzaile, argitaratzaile eta banatzaileen baitan. Eta azkeneko hauk dira bereziki, egun, aipatu beharreko. Zenbait banatzaile dela medio bizpahiru hilabeteko zenbakiak oraino hartzeko den jendea bada-eta.

\* & \* & \* & \* & \* & \*

Iruñeatik, gai berezi bati atxikirik, hilabete oro idatziko dutela esan zaiku, eta hona oraingotan frogak eman. Zinez gogotik hartzen dugu eskaintza eta nafarren prestatasun hori. Bizkaia, mottelago dabil bolada honetan; ez dugu, halere, itxaropenik galdu hauei buruz.

\* & \* & \* & \* & \* & \* & \*



Bizpahiru urtetan, bederen, organizazio mailan, ukan dugun guraso-jauntxokeria ezabaturik, arazo hau seriozki eta taxuz planteatzeko moduan gaude. Ez da oraingo zenbakian ardura guti hartu puntu horretaz, eta bazen irakasleok jabe gintezen garaia ere. Gainera, ez da teoriarik bakarrik bide berria urratu nahi, praktikan eta hemen bereziki ikusten da joaldirik gorrenak entseiatzeko premia. Agian, praktikan ekin zaio ekin ere lehenik eta honek ezarri dauku teoriak lehen bai lehen arazoa argitzeko eragina.

&\* &\* &\* &\* &\* &\* &\* &\* &

Lege berria da aspaldiko batetan aldizkarian jarraipena agindua zuen estudiatzeko beste gaia. Norbait oroitzen denean horretaz idaztea ere ez da guti. Merezki luke sakonki tratatzea.

&\* &\* &\* &\* &\* &\* &\* &\* &

Inola ere, edonork ikusten duena zera da: egoera baten kontzientzia hartu heinean, nahiz pedagogiaren mailan, nahiz sakontze mailan, bilatuko dugula aurrerabidearen helburua eta, jakina, honek eskatzen daukun dinamika egokia.

\* &\* &\* &\* &\* &\* &\* &\* &\* &\* &\* &





# DENOT<sup>4</sup> LANKIDE

Programak, urtez urte eta mailaz maila gain-behera datoz. Eta jakina haurrek aurrera ateratzeko, programa hauen kunpliztaile behar izan. Beraz, ez dago egiazko hautapenik gaineratik botako erabakien betetzailerik izateko hautapena izan ezik.

Ekonomia alderditik ere lege berrian ematen diren aginduetara bildu, ez bildu, hil ala biziko arazoa da. Eskabide hauei erantzun ezik ikastolaren iraupena oso laburra izanen da.

Guraso askok nahi duela erlijioa eman dadin? Ba gurasoak baino askoz ere gehiago arduratu eta interesatzen denik bada eremu honetan ere! Marxismoaren fantasmari beldur diola zenbait gurasok? Areago dira beldur, agintea bere esku dutenek.

Ez, ez duzue zer irakatsi behar dugun zehazten ibili beharrik dena esana eta erabakia bait da. Gehien gehienik ere erabakia dena betetzea erabaki dezakezue, hortik aurrera deus guti! Eta kontuz gainera, ez bait dezakezue tutik ere alda bestela eskolak hetsiko dauzkizue!

Maila honetan ez guraso ez irakasleok duguz zer-egin handirik. Beheragoko maila batetik abiatu behar dugu. Guraso eta irakasleok elkartzengaituen herri mailatik beretik. Ez herri abstraktu eta lainotsutik, guk osotzen dugun talde konkretotik eta geure buruak hezitzetik.

Guraso askok bortizki sentitu du bere herriaren egoera larria, bere hizkuntzaren hil-zoria.



Ikusi du hemen eginkizun latz eta korapilotsu bat. Ez du behar bada hainbeste nabaritu bere buruaren pobrezia.

Berandu gabe hasi da lanean baina oker hasi dela deritzat. Ez bait da nor bere burutik hasi. Horregatik bide erdira heldu orduko lanaren zama izuturik bezala atzera egin du. Atzera egin du bai, eta lanari heldu ordez, aginduak ematen hasi da. Errazara jo du, oker bidea hartu du. Ez du bere pertsonagandik lana hasteko kemenik ukan eta bere kultura maila oso eskasa eta zela ez du haintzat hartu. Kultura maila benetan landu nahi duenak ez da bere haurrak eskoletara bidaltzeaz kontent egonen. Herriaren egoera hobetu nahi duenak bere burua jorrra beza eta bere asmoak hitz hustelak baino gehiago direla frogatu beza!



Gaur guraso asko bere hurrek ikasten duten gauza berbera ikasten hasi beharra dago eta egiaz lan honetan jende guti ikusten da. Baina lan honetan buru-belarri sartu ordez zer gertatu da?



Formulazio ximple batez heldu dira han hemenka talde bakoitzaren (guraso-irakasle) eginkizunen mugatzera eta bat-bat besteari bere alorrean sarrrera ukatzea. Harrez gero zer geratzen da? "Zer" irakatsiaren monopolioa ukan uste dutenek deus guti bere eginkizunaz arduratzea. Zer honek bait bai dakar gizonaren ikuspegi bat, gizon hau leporaino murgildurik den gizartearen eta herriaren ikuspegi bat, gizarte honen sostengu diren baloreen ikuspegi bat eta...

Eta bere buruak jorrratuaz has ez badaitez ez ditugu luzaroan ikusiko ere!



Egia da, guk irakasleok ere deus guti egina dugula alor honetan. Baina egiteko gogoia agertu duguneko hor datoz susmoak, salaketak eta gainerako guztiak.

Agian, oker egonen naiz eta zuzentzeko prest nengoke baina ez dut uste guraso askorik eus-kara batua ikasten ari denik. Adibide koxkor bat besterik ez da, halere bestetan gertatzen denaren sintoma bat dateke. Nola beraz haurrei lagun diezaiekete ezagutzen ez duten gai batetan?

\*\*\*\*\*

Lege berriak, lokal berriak eta prestaketa berriak planteatzen dituzten arazoei aurpegi eman nahirik guraso eta irakasle talde asko biltzen eta irten bide baten bila hasia dugu.

Arduratu behar dugu eta ahalegin guztiz noski, aldiari aldiko eta tokian tokiko beharrei erantzuten, beti ere funtsezko beharrak gogoan ditugularik eta hauetarik urruntzen ez baina hauetarik hurbiltzen ari garela segur egonik.

Lege berriaren gora-beherak ez dira ordea, alderdi bakarretik ikustekoak. Legeak bete bai, biziko bagara behintzat, baina zer kontenido berri-rik duten ekartzen, zer lortu asmoz emanak diren eta dituzten hutsuneak zein diren ikasi eta eztabai datu ere bai.

Gu, legeez jabetu ordez, legeek guziaz jabe ez daitezen eta bere eskabideen arabera dantza ez gaitzen, legeei tamaina hartzen ikasi beharrean gara.

Lege hauk atzera nahiz aurrera pausorik markatzen duten ez dugu jende askorik zalantzan ikusi. Lege hauk, oro har, laguntza baino oztopo gehiago jartzen ote daukuten, zertan mesedegarri, zertan kaltegarri gerta dezaizkiguketan ez dugu zorrozki pentsatu.



GURASO ETA IRAKASLEON EGINKIZUNAZ

Egun hainbat ikastola egotea guraso asko eta askoren neke eta izerdiari zor zaio. Ezagutzen dugun guraso askok eta ezagutzen ez dugun gehiagok hamaika bat pauso emana du ikastolak zabaltzearren. Baina ez da ikastolak eraikitzea bakarrik, irakaskin tza-giroa aldatuz dohan neurrian arazo berriak sortzen dira eta erantzun bizkor bat eskatzen dute.

Bazirudien eraiki eta poliki abiatzen hasi zirela eta horra non datorren lege berri eta zorrotz baten aginduetaramakurtu beharra. Lehenlege arazoak konpondu ordukoxe, bigarren lege arazoak, lehenak baino gaiztagoak sortu dira. Eta lege arazoak konpon ezinik dabilenari ezin gehiegi eska dezaikegu.

Halere, arazo baten ikuspegi osoa izan ezik, ez dago lanaren alderdi guztiez jabetzerik eta bakarren batzuk erdi ahantzirik gera daitezke. Hau gerta ez dakigun eta ikuspegi oso batez heziketaren zenbait alderdi balora dezagun zenbait puntutan areago jo beharrez aurkitzen garela uste dut. GURASOEN kezka non hasten da eta norat irixten da?

Ikastolaz kezkatuiko gurasoak kontu ezinak ditugu. Gehientsuenetan gurasoak, ordea, ikastolako arazo berezi batzuek arduratzen dira eta beste zenbaitzuek gutiegi kezkatzen direla deritzat. Jakina, ez dago denok denotan ibiltzerik, lana hobeto egiteko zatikatu egiten da eta horrela bakoitzak badaki non eta zertan erantzun behar duen erantzun.

Alabaina badira funtsezko arazo batzuk, guztion kezka eskatzen dutenek eta arreta handia goz tratatzea merezi luketenek.

\*\*\*\*\*




Gurasoen eginbeharra administrazio lanetara mugatua geratu da batipat, ekonomi -alderdia, edifizio berrien eraikitzea eta abar.,.

Pedagogiko arazoak irakasleen eginkizun jotzen dira eta praktikoki gertatzen dena zera da: guraso talde handiena bere haurren heziketan ia baterere sarturik ez egotea, babestu nahi duten eta babestu usate duten eskola horren eguneroko bizitzatik oso urrun gertatzea. Oharkabean edo oharturik gurasoen eginkizunak areago jo behar lukenen mementoan, gurasoek planto egiten dute eta ikus daitekeenez beren kezka ez du beste edozein eskoletan baino aurrerago jotzen.

Gonbarazio batez ikus dezagun edozein eskoletan (erdal eskoletan) nahiz ikastetxe pribatu edo kolegioetan zer gertatzen den:

Tamalez-erdal eskoletan-bere haurrak dabilzkien guraso oso guti arduratuko da bertan bere hurrei ematen zaien heziketa motaz. Sarritan heziketa mota kontrola ahal izateko eskaintzen zaien bide bakarra noiz-behingo notak izan ohi dira. Onak izanik ondo dabil ikaslea eta beherat dohazen heinean moteltzen ari da. Astinaldi bat eman eta ea bide zuzenerat itzultzen den, eta, hala gerta ez badadi makila bortitzago bat erabili behar.

Tarteka eta okerren bat bide dela guraso batzuk agerraldi bat egiteko deia hartzen dute. Erizbide honi jarraiki ikasle bihurrien gurasoak, ikasle zintzoen gurasoak baino maizago behar dute eskoletara agertu. Baina beti ere ohiezko gauzak entzutera dohaz eta berak eskola haietan beretan iraganiko ordu aspergarriak gogoratzera.





-Kolejio nahiz ikastetxe pribatuetan-oso sarrera tippia izaten dute. Baina haurrak esku one tara emanak dituzte eta lasai egon daitezke. Izan ere toki hauetako hezitzaileek badute zerbait bere zirik gurasoen kezka baretzeko. Nik ez dut bakarrik ere ezagutu ikstetxte barneko arazoetan sudurra sartu gogoz. Haurra eraman eta kontua datorrenean xintxo ordaindu.

Zenbaitetan haurraren egoeraz jabetzeko ez dute bertaratu beharrik, bere haurrari dagokion txostena etxeraino helduko bait zaie.

Badirudi, gauzak azaletik ikusiz, bederen ikastoletako giroa oso bestelako dela eta gurasoak bere haurren heziketari arreta handiz so egiten di etela. Egiaz, ez dut uste hainbesteko alderik bate-tik bestera dagoenik!

Guraso batzuen eritzia jaso ondoren, ikas tolako gauza garrantzitsuenak gurasoen esku gera-tzen direla pentsa dezakegu. Baina erabakitzeke di ren puntuen garrantzia ikas badezagu, ez direla pun-tu nagusiak erraz ohartuko gara.

\*\*\*\*\*

Gauza hauk denak guraso eta irakasleok elkarrekin ikasi beharreko ditugu, hasi herri mai-lan eta ahal dugun neurrian zabalduz.

Guraso zenbaitek ez du oraino irakasleon nortasuna eta egitekoa ez onartzen ez-eta errespe-tatzen. Eta elkarrekiko lan batek giro epel hau sa-notu eginen luken itxaropena ukan dezakegu.


Bada ia garaia gurasoek irakasleentzako ikaspaldiak eta antolatzen zituzteneko egoera ne-gargarri hartaz ahazteko. Irakasleok, gerora gure i-kastaldiak antolatu nahi izan ditugunean, guraso ba-tzuk ezin izan dute etsi eta berriro ere bidea era



kutsi asmoz eta arriskuak non diren adierazi nahi rik ikusi ditugu.

Ez dugu esanahi guk dena ikasia dugunik, elkarrekin ikasteko prest gaude baina ez gu inor ez bagina bezala harturiko erabakiak betetzeko. Lana onartzen dugu lankideek eskubide berdinez ari daitezken orotan.

Kepa Hernabide.





# GURASOekin BAT EGIN BEHAR DUGU!

Baina, baina esanen du batek baino gehiagok, gurasoek zer nahi dute, bere hurreke esaminak gaintzeza baino areago? Eskoletan esertokirik bere seme ei ukatzen ez zaien artean ez dira mugituko!

Guraso talderik handiena legeak betetzeaz kontent da eta ez du deus areago ez ikusten ez irrikatzen. Gu baino kontserbadoreago dira-eta!

Bai, guraso gehientsuenei lege alderdia baka-rrik interesgarri erizten bazaie ere, eta heziketa-ko arazo nagusiez batere axolik gabeak agertzen bada dira ere, zeren ondorioz den hau gertatzen ikasteko litzake. Irakasleek deitzen dituzten bakoitzean - huskeria batzuk konpontzearen, edo-eta aurrez erabakitako gauzez jabe daitezzen izan ohi da. Beraz, ez dute bere semeek hautatuko dituzten bideetan - zer-ikusirik handirik ukanen.

\*\*\*\*\*

Egia da baita ere, behin edo beste, ahalegin gogorak egin ondoan ez dugula ezer probetxugarririk lortuko, baina lan isil eta luze batek denbora eskatzen du, gogo biziz lanari erantzutea nahi-eta-ezko da, eta lan hau gutitan hasi dugu.


Gainera, gure lana gurasoei uler-eraz nahi diegunean pedagogiaz zertxobait jantziak direnei jokatzen gaitzazkie, ez-jakinei edo apalenei guti. Dirudienez, azkeneko hauk ez ditugu gure lana ulertzeko eta bultzatzeko gai ikusten. Praktikoki hau frogatua balitz bezala jokatzeko dugu eta behar bada, esperientzia sakonik-ezean, aurkako arrazoin batzuk agertzen saiatuko naiz.

\*\*\*\*\*



Gure ustez zerbait gehiago ikasiak diren guraso hauek zenbait irakaskintzako zenbait printzipio kolokan ikusirik, laster du atzera egiten eta beldurraren beldurrez kontrako lan bat hastea ere ez da hain harrigarri gertatzen. Azken aldiko gertakizunek azaltzen daukutenez, jokabide atzerakoien puntan, maiz aski guraso sasi-letrauak egon dira. Bai, garai batez, aurrera bidea urratu zeukute nek, egun urrunegi hel ez gaitezten, eragotzi egiten daukute.

Guraso batzuk hainbeste hamorruz, berek jaso zuten heziketari ez eusteko tan, guraso ez-jakinak ditugu nahiz-eta guk erdi ahanztirik izan. Beren haurrek, berek pasatako miseriarik ez pasatzea nahi lukete. Lehen aldiz hauekin mintzatzen garenean elkar ez aditzea erraz da. Gu behar bezala ez ulertzea eta gure lanik ez babestu nahi izatea gerta dakieke. Baina zer lortu nahi dugun eta zer egiteko gai garen konturatzen direneko, beren laguntza eskainiko daukute. Hauk ziren Freinet errebere larri aldietan aldeztu zutenak.



Bai, guraso hauk ditugu, guk hitzez aldeztu esan eta uste ditugun proletario ahanztziak eta lan honetan buru-belarri sar ez bagaitenez berriro ere guk jasoko nahi genuen proletargo, mila bider aitzekitzat erabilitako hori, abstraktuki pentsaturiko zerbait, konkretagaitz eta... izanen zaiku.

Guraso hauk ere noten txartela dute aurrekik eskatuko, baina baita ere, behar dan bezala agertuz gero, notak jendearen arteko hautamen zorrotza egiteko tresna besterik ez direla adi dezakete.

Irakasle bakoitzak bere esku diren ikasleen o



rientazioa eta etorkizuna seriooki ikasteko gai izanzen balitz, lorik gabeko ordu asko jasan beharko luke. Zertarako, ordea, gehiegi arduratu? Emanen dizkion notak esanen bait diote nondik norat jo dezaken eta hortik aurrera gurasoen diruak. Ez du ezer taz responsable egin behar; notek hitz egin bezate eta hautamena ikasketak hasi bezain laister eginen da.

Ez da komeni familia pobreetako haur gehiegi goi-mailetara hel dadin. Ere mu honetan irakasle oso ezkertiar direnak ere, eskuindarrei hain beharrezko zaien hautamena egiten zaizkigu.

Eta bide honetatik abiatuz gero, erdi mailako karrerak pobreen haurren eremu arrunta gertatzen badira, hau eraketa baten ondoren dela laster ikas ahal izanen dute! Hauk ikus bait dezakete inork baino garbiago zer neke eta izerdi, beren hurrek duten bota behar, goi-mailako irakaskintzara heldu nahi badute, beste zenbait haizeak eramane bezala, maila berdinetara altxatzen den garaian. Eta baita ere, noia ez.

\*\*\*\*\*

Zergatik irakaskintzaren arazo nagusienak bakar batzuen esku daudela, hauena dela soil-soilik nahi duten lege eta orientazio zabaltzea. Eta azkenik klase domeinatzailea dela gailur-gailurrean noia ekonomian eta politikan hala irakaskintzan ere jaun eta jabe. Ez bait dago irakaskintzarik politiko bizitzatik at, bederen gaur egun.

Guraso ez-jakin hauk ez dute guran konfiantzarik izanen, berentzat oztopogarri izan dire gauzak seriooki hartzen ez ditugun artean. Guk ortografia ri garrantzia handirik ez ematea bidezko irudituko zaie hala azal badezaiegu, baina gure metodoak besteak bezain on direla, baita ere ortografia irakasteko, frogatzen diegunean. Nahi dugun metodoez bali



atu bai bainan bere efikaziaren froga garbirik emanen badute.

Ez gaitez en bere konfiantzarik ezaz gehiegi harri, sano bait da! Gutako zenbaitek zer esaten du en eta beste askok zer egiten duen ikusiz gero uler-erraza da.

Entzun dugu behin baino gehiagotan, ikasle baten dohainak aipatu ondoren, egoki litzaiokeen karre-ra bat e-hautatzea bortxatzea, gurasoek ezin erantzun izanen bait lukete, diru aldetik! Diruak du bada azkenik erabakitzen zer-nolako karrera mota langileen hurrei dagokiena behar duen izan.

Behe mailako gurasoek, beste edonork baino hobekiago hautamen honen egiazko arrazoina aditzeko gaitasuna izanik ere, ez zaiē maiz ematen. Maiz aski aipatzen den delako orientazio hori, langileen hurrek goi-mailara hel ez daitez en egin nahi den azpi-lana besterik ez dela guraso zanpatuenak uler-dezake.

Honelako, langileen haur asko goi-mailara helbale di, laster izanen lirateke irakaskintza lan-toki guztiak gainezka eta burjesen seme hainitz, lanik gabe, langileen hurrekin burruka egiteko elkartu beharko lukete...eta hau ez da komeni.

Horregatik, ez gaitezke gurasoen konfiantza irabazi zain, lanean hasteko egon. Konfiantza lanean eta lanen bidez, ez bestetara, irabaz daiteke. Hitzek ez dute egun indarrik.

Zenbait kasutan ez dezakegu inola ere froga ikasleez benetako ardura dugunik gurasoez ahaz ba-gaitez. Eta saldukeria bat gure eginkizunari egin nahi ez badiogu, ez gaitezke jokabide erosoetara bil. Eskola giro epel batez nahiz fraseologia iraultzaile batez ez da deus aldatzen!

GURE eginkizunaren benetasuna neurria hartu nahi badugu, HAS GAITEZEN GURASOENGANDIK!

S. Harrieta



# Heliketa Berritzearen <sup>alderdi</sup> ~~Bi~~ Bi

1.- Delako -Enseñanza general básica- "DUAN" ematen da.

Lehengo irakaskintza eraketa oraingoaz a aldez badezagu, delako EGB aipatuak sortu duen aldakuntza zer-nolako den ikus dezakegu.

Oraindaino, península mailako irakaskintza-egitura honela zegoen zatikaturik:

- a.- behe mailako irakaskintza, -enseñanza primaria- deritzana.
- b.- erdi mailako irakaskintza, -enseñanza media izenekoa. Eskola profesionalak nahiz laboralak maila berdintsuko izanik. Erdi mailako irakaskintza, hurrengo pausorako, hots, goi maila alderat, prestaketa izan zedin eraturtua zen. Erdi inguruko klaseak edo horitiko gorakoak beren seme-alaba guztiak hemendik pasa-erazten zituzten.
- d.- azkenik goi mailako irakaskintza. Aukerazorrotz baten bidez, ikasleentzat motelenak baztertu ondoren, nazioaren zuzendaritzan esku ukanen duten minoriek hautatzeko jarria.

\*\*\*\*\*

Egungo lege berriak dionez, -delako E.G.B. hori DENENTZAT berdin izanen da eta 6 urtedanik 13 urte arte, biak tartean direla, ematen da. GAINERA DUAN IZANEN OMEN DA.



Lege berri honen eskabideei eusteko eragozpenik han dienetako bat, zalantzarik gabe, irakaskintza pribatuak duen hedadura latza izanen da. Gizarte klasista baten era ezberdinetako zentroek egon behar dute, gizarte beraren egiturak iraungo badu. Hauek sistema baten eusle gertatzen dira eta edozein aldakuntza sakonari aurre ematera behartuak dira.

Irakaskintza pribatu honen garrantziaz jabetzeko biderik laburrena, numero bidez gonbarazio klar bat egitea dateke: Behe mailako irakaskintzan, irakaskintza pribatuari % 30,5 dagokio, erdi mailako irakaskintzan 580 heltzen da eta Heziketa profesionaletan %69.

&\* &\* &\* &\* &\*

Lege berriak argiro dionez delako E.G.B. DUAN eman beharko da baina hau konkretoki nola egin ahal izanen den ez dago batere garbi.

Enpresa pribatu ugari dagoen garaian eta berriak zabaltzen ari direlarik, irakaskintza hau DUAN izan daitekeenik ez dago pentsatzerik ere, ez bait da hau, kapitalista gizarte honen abiadan, integratzen.

Gaitz honen sendagarri, estaduaren aldetik ikastetxe pribatuei eskainiko zaien laguntza ikusten bada ere, orain arteko esperientziak lekuko ez dago optimista izaterik.

Makurrago dena erremediorik izan ez eta, laguntza honek, gaitza gaiztotu egin dezake:

- a/ Hau Ikastetxe pribatuentzat pribilegioko bat bilaka daiteke, eta dena den, egoera klasista batez bukatzeko ez da bateretere bide egokia.
- b/ Irakaskintza SOILIK hutsean eman behar bada, ikastetxe pribatuek asmatuko



dute bai hamaika beste konzeptoz kobra -  
tzeko bidea. Sartzeko eskubidea, bazkaria eta abar  
direla..?

Okerrago dena, eguneroko esperientziak fro-  
gutzen daukunez, DUAN izateaz jendea zabal mintza -  
tzen hasi zaikun garaian, ikastetxe pribatuetako -  
prezioak gora egin dute! Ministerio-tik DUAN izate  
hontaz barra-barra ari zaizkigun garaian, gero eta  
gorago ordaindu behar duten gurasoen hitza entzu -  
ten hasiak gara. Baina beti bezala isilik daudenek,  
bere semeek ikastetxe pribatuetara igortzerik ez  
ditenek, dira. Eta behar bada, hauen hitza entzutea  
oso beharrezko zaiku.

\*&\* & \* & \* & \* &

#### EBALUAZIOAZ....

Ebaluazio honen helburu, ikasle bakoitzak  
daraman heziketaren prozesoz, ahalik-eta informazi-  
o zabalena edukitzea da. Eta berebat ikasleak bizi  
duen giroaren berezitasunaz ongi jabeturik egotea.

Hiru dira honetarako eman behar diren  
pausoak:

- bat/ Helburuen seinaltzea.
- bi/ Helburu hauk erdiesteko egoki diren  
teknikak hautatzea.
- hiru/ kasu bakoitzean lortu diren resultado-  
en hobetzea.


Denori jakina zeukunez, lehengo azterketa  
sistimaz baliatuz ez zen ikasle bakoitzaren balora-  
tze egokirik erdiets ahal. Hontaz oharturik, orain-  
goan, heziketa prozesoa bere osotasunean ezagutu e-  
ta jarraitzeko eskatzen da. Kondizionamenduez az -  
kar jabetu eta makurrak agertu hala zuzentzeko bi-  
dea egin nahi da.



Ebaluazio honen oinarrian dato sikologi-ko eta medikoak egon behar omen dute. Lehen datoak ikastetxe bakoitzean diren bide teknikoak enplegatuz lortuko ei dira eta bigarrenak sendagilearen laguntzari esker.

Baina ez dago horrelako tekniko ez medikurik. Horregatik oinarrizko liratekeen dato hauk jasotzeke gauzak berriz ere arinko eginen dira. Legea betetzeko behar diren baldintzak sortu ez di-relako, noski.

Hontaz gainera, lege berak, lan honen arduradun izanen den pertsona bat seinalatzen du. Egin kizun konkreto bat ematen zaio baina bere lanaren saririk ez da aipatzen. Nola bada irabazpiderik gabe lanean hasiko den pertsona bat topatu?



Baina bada larriagorik ebaluazio lege berri honetan. Batxileratoa bi erizpidez lortuko da:

-Eskola estatukoetan nahiz ikastetxe pribatuetan, jendearen gaitasuna neurtzeko erabiliko den erizpidea, ebaluazioa izanen da.


-Baina hau egin ahal izateko ekonomizko oinarririk ez duten ikasle asko denik ezin uka. Hauek beren prestaketa beste era batetara beharko dute burutu. Eta huentzat bi froga jarriak dira: lehena ikastaroaren amaian eta bigarrena irailleangainditu beharrak. Nola bait hauk ere ebaluazioaren mesedeez zerbitza daitezzen esaten da.

Baina geroztik eman dira froga hauen iraupen eta helburuak eta erabat lortu ezinak direla ikusi da garbi aski. Ezen ordu batez ezin bait daiteke ikasle baten gaitasuna neur eta bere prestaketaren esakotasuna epaitu. Hortaz ikasle asko izanen ebaluazioaren mesedeez etekinik aterako ez



duena.

Rekuperazioaz ematen den ikuspegia berebat arras pobrea gertatzen da: aurrenik adierazi zenez, kurtso edo ikastaro antzera eman behar bide zen baina gero, usadioak erakutsi daukunez fitxa batzuek betetzeaz, legearen eskabideak beterik gertatzen zire. Eta jakina, gauza erraza gertatzen da fitxa batzuk betetzeko ematea, lana serio egin beterik da.






# 20 LEGE BERRIA ETA HEZIKETA

Azken urte hauetan heziketa lege berria dela-eta, sortu da, bai, gure artean premia eta arazorik asko. Ekonomia alderdiari begiraturik badugu naitxo lan eskaturiko guztiari erantzun ezinik.

Aldaketa honek izan duen hotsarekin badi rudi irakaskintzaren nora bidea edo guztiz berritu daukutela, baina, laster konturatzen gara: ebaluazioa eta teknika berri batzuekin osaturiko heziketa lege berria ezarri daukutela. Beraz, heziketaren haria lehengo lekutik dohalarik, sistimaren zerbitzari den irakaskintza ematera behartuak gara.



Eraberritze honen kontradiziorik handiena bere azaletze garaiari dagokio. Alegia, gizarteak aldaketa sakon batzuk egin behar dituen garaiean sortzen da. Gehiegi dakite bai gure gizartearen batzuk besteen arabera gabiltzala. Hitza dutenak beti goikoan dira eta gainerako taldeak ez du zer-esanik. Ez dezake bere baitaz jokatu.

Gure inguruko erakundeak ikustatzean, bai familia, eliza, estatua, administrazioa, irakaskintza.. bakoitzaren jokabidea guztiz indibiduala dela konturatzen gara. Talde buruaren agintaritzapean bezala bakoitzaren burua ikusten delarik. Bakoitzaren ahalmenak landu gaberik. Beraz, arazo guztien konpontzaile eta lokarri bezala goitik dagoena azaltzen zaiku. Non da gizarte eta talde sentidua?

\*\*\*\*\*

Heziketa, gizarte mailako arazo guztien oinarria da. Gizon jakintsu batek zuzenduriko eskola...



la tradizional bateko haurrak isilak eta konformis-  
tak izanen dira gehienez. Hauek guztia eman beza-  
la hartuko dute. Ez dute berek ezer egin dezakete-  
nik uste izanen; ez dira goitik egiten zaien jokuaz  
jabetu ahal izanen; ez dira erabiliak sentituko, be-  
rak izanen dira gizarte zapaltzailearen laguntzai-  
le eta osatzaile. Heziketa eta gizarte arazoak na-  
hasi doaz. Gizartearen eraberritzea heziketaren  
bidez adieraz daiteke, eta heziketaren berritzeak -  
gizarte aldaketa sendoak eskatzen ditu.

Azken aldi honetan heziketari buruz esan  
eta idatzi den guztia bide honetatik ahal doha? Gi-  
zarteak ere berritzeari ekingo ote? Dena dela, hezi-  
ketari buruz esan den guztiarekin itxuraz behintzat  
zerbait handia egin balitz bezala agertzen dira, e-  
ta ez da aitzaki txarra bertan gelditzeko.

\*\*\*\*\*

Heziketa lege berria, herri mailako niho-  
ren eritzi gaberik egina izan da. Irakasle eta ikas-  
leek ez dute lan honen usainik ere hartu ahal izan.  
Herriarekiko konsulta eza akats handia gertatzen z-  
en, nahiz referendun bat ez bazen ere konsultatze-  
ak jokabide bat agertzen du. Konsulta baten ondo -  
ren erantzun txarra jasotzea larritzekoa izanik, ez  
da guttigo beldurtzekoa erabaki batzuk hartu eta -  
lege bihurturik goitik behera ezartzea. Gizarte al-  
daketa batetara ez dohan heziketa berria faltsoa -  
da, hitzetan gelditzen bait da. Beraz, ez du izateko  
arrazoin handirik.

Eskola, unibersidadea eta beste edozein i-  
kastetxe ez du herriarengandik urrun behar. Herria  
eta eskola ez dira puntatik puntako edo elkarrekin  
zer ikusirik ez duten zerbait. Beraz, herri bizitzan  
loturik dagoen haurra behar dugu hezi.

Lehen esan bezala, eskola barrurako tekni-  
ka batzuk ematen zaizkigularik, ahal den heinean be-  
tetzen hasiko gara eta hara zertan gertatuko garen:



eskola barruan sortze, ekite, pentsatze eta askatasu naren ahalmenak landuaz ari badira eta kalera irtetzean guztia eginik dute, han ez dago pentsatu beharrik, ez du ez kritika egiterik, ez-eta bakoitzaren askatasun giroan bizitzerik. Honelako pertsona ez du gizarteak onartzen, baizik bertako, egitura osoaren barruan moldatu behar du.

Gizartean goitik behera guztien bizitza zuzentzen duten batzuen jauntxokeria nabarrentzen da. Heziketa bera ere hala zuzendua izan da, nahiz demokraziazko heziketa deitu.

\*\*\*\*\*

Pedagogia mailako erabakia eta aginduak ematerakoan irakas-kintzan esperientzia duen jendearekin kontaktatzen ez bada, nork sinets erazi ikasleei beren ekintza eta bizitzak zer-ikusirik handia duela gizarte osoaren barnean? Zenbat irakasle eta ikasle konsultatu dira? Behe mailako zenbat iniziatiba errespetatu dira? Zenbat lehen esijentzia kontuan hartu dira?



Heziketa berritzearen benetako nahia demokraziaz jokatzeari denik ez da ikusten. Heziketak eta gizarteak harreman herstuak behar dituela esaten badugu, ondorio hauetara heltzen gara: benetako gizarte berritze batek heziketaren egiazko berritzea lekarke edo heziketaren aldatzeak gizartearen astintzea. Esan bezala heziketa lana ongi eramateak, gizarterako jende bat prestaturik dela esan nahi du. Bai ikasleek eta irakasleek ere honetan parte hartuko dute eta guztiek askatasunez eta nortasunez beteriko bizitza eskatzen dutelarik parte hartuko duten gizartearen eraberritze lanean. Esanak esan, gaurkoz nahiko zaila gertatzen da honelako bat ikustea. Teknika aldetik aurrerapen batzuk lan



duko dira, baina kontuz, irakasleari edo eskolako organizazioari kritika bat egiten hasten badira gure ikasleak. Heziketaren aurrera biderako eman diren pausoen bultzatzeko irakasleen esperientziaz beteriko aportazioak eskatzen dira, baina kontuz gero, ez dadila irakaslea ministerioak erabili duen jokabidez jabetzeko hainbat sartu!

\*\*\*\*\*

### IRAKASLEA BERE LANAZ OHARTZEN

Eskola eta kanpoko gertakizunaren hokarri handiena irakaslea bera da. Heziketaren berritzea, irakaslearen benetako ohartzearen heinean egingen da:

- a) Herriko gertakizuna: hizkuntza, politika, erlijioa, familia, irakaskintza...
- b) Irakaskintzaren oinarriaz jabetu eta goitik ezartzen daukuten programa eta legeek ahal den guttiena mugatu gaitzatela.
- d) Heziketa lana bai haurrekin eta gurasoekin ere behar da egin.

Egun, heziketak krisia handia bizi du. Heziketaren berritzea dela-eta, ez da inoiz hainbeste ko hotsik atera. Aspaldian lehengo egiturakin jarraitzen genuen. Halako batetan ordea, pedagogia gaia herri mailan azaldua izan da. Behar dugu, bada, ahal den gehiena aztertu eta esperientziak egin, hauxe baita honelako ekintza bat aurrera eramateko biderik egokiena. Lege berriak, ez du teknika batzuen baitan gelditu behar, baizik berri baten emaitza behar du izan.

Garaiari eta interesari dagokionez, onar-



tu du herriak lege berria. Hala ere, laster sortzen dira arazoak. Hainbesteko ordenarekin gauzak azaltzeak jendearekiko deskonfiantza handia adierazten du. Izan ere, esperimentazio eta hautatze biderik ezin eman jendeari, bestela arriskugarri gerta daiteke! Ez dute, ez, beheko jendearen aportazio esperimentalak lekurik izan. Ez bait dute iraultza eta anarkia girorik sumatu nahi. Beraz, zentralismoa menperatzen ahal da? Goitik behera ematen diren norma horien agintaritza haizatzen ahal da? Ez. Soil soilik norma berriak ematen dira, baina orain ere goitik behera datoz.

Heziketaren berritzea ez da orain sortu asmoa. Eskolaren mugimenduak hirurogeita hamabost urte-edo ditu. Pedagogia-mentalizazioa aldatzen zer-ikusirik handia izan dute Cháparede edo Dewey, - Montessori edo Decroly eta beste zenbait pedagogok ere. Irakasle hauen lanak ez du hots handirik izan, baina, dela ehun urtekoak dira. Duela berrogei urte ba zen "revista de la pedagogia nueva" deritzan aldizkaria eta "nueva educación" deitzen zen heziketa mugimendua. Ordutik honera zer gertatu da? Non lan hauen aurrera bidea? Egungo berritzearekin ere urak lehengo hibaitik johanen direla esan daiteke.

\*\*\*\*\*

Hona bada, egoera honen aurrean zer premia nagusitzen diren:

- a) Oso argi ikusten ez den heziketa honen mentalizatzea irakasleen artean.
- b) Gizartearen mentalizatzea eta batez ere gurasoena.
- d) Eskola eraketaren irekitzea (aurkako indar guztiak kontuan hartzen direlarik).

Ezin esan aldaketa hauek zenbaiteraino eta zer eratarira egin beharko liraken. Baina gertakizuna aztert



tuaz e... etaren garrantziaz jabe gindezke, eta hau  
lege b... iaren frakasoia izan daiteke.

\*\*\*\*\*


### MENTALIZAZIOAREN ALDATZEA

Hona gure pedagogiaren galdera sakonene-  
tako batzuk: Zergatik, zertarako eta norako hezi? Lan  
metodoak aldatuak izan dira ala ebaluazioa bakarrik  
aldatu dute? Beraz, orientazio berriak sakratuak di-  
ra edo betiko ohituren kontra eztabaida daitezke?  
Irakaskintzaren arazo handienetako bat, berarekin e-  
ratzaileak erabiltzen duten jokabidea da eta hau  
ez da hain erraz aldatzen. Irakasle eta pedagogoen  
erru handienetako bat zera da: bere buruaz zihurta-  
sun gehiegi dutelarik eta teknika batzuk bitarteko  
erabiliaz berek pentsatzen duten goitik behera sar-  
tzen dutelarik ari dira heziketa lanean. Garbi dago  
bere buruaren kontzientzi hartze falta zaio. Hezike-  
taren ardatz den irakasle eta ikasle arteko harrema  
nen urritasunak egungo pedagogiaren eskastasuna ager-  
tzen dauku.

\*\*\*\*\*

Nahi eta nahiezkoa da irakasle  
a goi maila hortatik jaistea. I-  
kasleek behar dute izan eskola  
osoaren bizitza, berek egin an-  
tolaketa osoa. Honek irakaslea  
ikasleen mailara makurtzea es-  
katzen du eta hala ez bada he-  
ziketa faltsoa da.

Duela urtebete arte  
-edo ez zuen ikasleak ibilaldi  
zine forun edo musikako lanik






egiteko aukerarik. Honen erantzun bezala, delako "actividades extraescolares" programatu dauzkigute. Baina, hemen ere, honelako lana larunbatetan egitearekin ikaslearen iniziatiba eta askatasuna aski mugaturik ikusten ditugu. Irakasleek eta ikasleek elkarrekin eskola biziagoa egiteko ahal diren posibilitate guztiak behar dira probetxatu: esate baterako, irakasle berri bat eskolara gonbitatuaz era ezberdineko, klase bat eratuaz; beste egun batez oso gertutik bizi duten arazo baten elkarrizketa eta aztertzea; pelikula baten eratzeta; mendiko irtenaldi bat, elkarrekin prestaturiko izparringi bat, etab. Lan hauek irakasle eta ikasle arteko harremanak sendoagotzen lagunduko daukute. Lan hauek ez daitezke larunbat goizean egin. Azkenik, irakasle eta eskola osoan askatasun eta konfiantza giro bat eskatzen dela.

Heziketaren laguntzaileak ez dira honen metodoaz arduratzen, ekonomia aldeari ematen diote garrantzia. Eskola gehiago sortu, irakasle gehiago eta hobeak bildu behar ditugu. Ikasleak hezi eta aukeratu behar ditugu, eta hauek eta gazte guztiak eskola hauetan izan daitezen ahalegindu.

ARANTZA.





27

# 1 FAKLIRSAIAK

Testo eta irakurgaiak direla-eta aspaldi txoan asko hitz egin da.

Frenet-koperatibako liburuxkak laster ir tetzeko direla jakiteak asko poztutzen gaitu. Nahiko buruhauste hartzen dugu, bestela ere, irakurgaiak aurkitzen.

Baina beste irakurgai askokin gertatu zaiguna gerta ez dadin, ohartxo batzuk egingo nituzke. Beste irakurgai askokin gertatu zaidana (niri behintzat) zera izan da: Ez dituztela gogoz irakurtzen. Zergaitik?

Nire ustez arrazoirik sakonena hau da: Euskara hori ez dutelako ezagutzen. Oinatiko haurrei begira hitz egiten dut. Jakina denez Oinatiko euskalkiak bere berezitasunak ditu. Hala ere, ez dut uste horregatik denik.

Oinatiko haurrek, eta beste herri-pilo bateko haurrek ere, ERDERAZ egiten dute. Niretzat hori da arrazoiaren muina: Ez Oinatikoek, ez beste herri askotakoek (nire ustez) ez dute euskara hori jakiteko MOTIBORIK ere.....

\*\*\*\*\*

Alde batetik HITZEI begira: hitz ezezagun larregi aurkitzen dira. Denok dakigu zenbat zail tzen duten irakurgai bat, hitz ezezagunak. Gehiengtan bertan behera uzten ditugu. Eta haurrek zer esanik ez. Hitz luzeekin ere, kontuz ibili behar da.

Bestalde, FRASEAK. Sarritan, fraseak luze egiak izaten dira (ikus Andersen-en ipuinak). Apus



tu bat egingo nuke: Irakasle askok frase askoren e san-nahia lehenengoan ezetz jaso.


ADITZA. Aditzak ere kontu asko egin be - har duelakoan nago. Ez da aski aditza zuzena eta garbia izatea, zaila bada. Batez ere aditz sintetikoaren forma batzuk zailegiak egiten dira.

GAIA eta PRESENTAZIOAK asko esan nahi du te irakurterakoan: Letraren tamainoa, irudiak eta a - bar.

Irakurgai hauk egiterakoan, arriskurik han diena, handienetakoa behintzat, garbizalekeria dela uste dut. Esperientzi hau geure burutan ikusi du - gu: Ipuin bat edo, euskaratzerakoan garbizalekeria - ren puruz ulerkaitz egin ditugu. Eta honek egundo - ko atzerakada ematen dio edozeini.

Ez dut esaten euskara kaxkartu egin be - har denik. Zera bakarrik esan nahi dut: Gaurko ikas toletako haur erderakoiendako euskara erraza eta garbia bilatu behar dugula. Eta ikastolatik kanpo - ra irakurle asko aurkitu nahi baditugu, are arreta gehiagokin.

Tomas Elorza





# Dibujoa, Haurren espresio bide

Dibujoa, gisa batera edo bestera hartua, bide eta erabaki asko izan dezazke. Baina guk hemen haurren espresio bide bat bezala hartuko dugu eta baita ere haurraren ahalmenen adierazpen bat bezala.

## Espresio bidea.

Haurrak bere mundua badu egina gainera; gure lanik zailena eta garrantzitsuenetakoa mundu horri sentzu bat ematea da, hainbat bide etaibilitateren medioz mundu hori osatu eta desarroila dadin.

Baina mundu hori ezagutzeko behar dugu jakin haurra nolakoa den, eta biderik egokiena eta egiazkoena dibujoaren bidea da.

Haurrak lapitza eta paperaren bidez, batre baldintzarik gabe, erakusten dauku bere mundu eta bere mundu hori nola desarroilatzen den esaten dauku aldi berean.

## Adibide batzuk:

- Dibujoa 1 : Hona hemen hitz egiteko erraztasunik ez duen haur bat. Berak dibujoaren bidez jakin izan du gauzez betetako mundu aberats bat erakusten.
- Dibujoa 2 : Haur honi Gabonetako dibujo bat egiteko eskatu zitzaion. Armairu hau egin zuen. Berak zion: armairu honetan gordetzen zirela Gabonetako gau-



za guztiak. Pentsatu haur honek non i -  
pintzen duen bere begirapen guztia Ga -  
bon egunetan.

-Dibujoa 3 :Gure munduan gerra ba da,bai  
na gure herrietan oraingoz  
ez dago gerrarik,hala eta guz  
tiz ikusi haurrak nola senti  
tzen duen gerra giro hori.

-Dibujoa 4 :Hona hemen haur honek nola i  
kusten duen gizona espazioan.

### Haurraren ahalmenen adierazpen bezala:

Dibujoa zorakeria bat dela gurasoek dio-  
te,baina haurrak hain erraza zaion zorakeria hori e  
giteko kapaz ez ba da,zailago zaizkion hainbat lan  
eta arazo nola erabakiko ditu?


Badut nere gelan 6 urte dituen haur bat,  
batuketak ez ditu oraino ikasi eta beste hainbat  
lanetan ez zuen lan egoki bat egiten. Berak eginda  
ko,dibujoen bidez,konturatu nintzen bere mundua e-  
zagutzen ez zuela oraino,eta menperatu gabea zeuka  
la ere.

Berak egindako gizonak burua alde batean,  
oinak eta besoak bestean,eta gorputza beste batean  
zituen;orain badu bere hainbat dibujok sendotasun  
eta koerentzia bat;beraz,beste lan askok duen beza  
la.

Adibidez: Dibujoa 5:Kursoaren hasieran e  
gindako bat.

Dibujoa 6:Hiru hilabete ondo -  
ren egindako beste  
bat.













2













4

Gizona

Largia







6



Jolas le Ruak



# Hezurdunak, oso bat

Zientziari buruz hau rrak ikastolan ikasi be har duena, esperientzia bi dez ikasi behar du. Hau da, berak ikusi, ukitu eta eginaz.

Uste dut hontan denok ados izango garela, baina askotan zail zaigu materiala bilatzea.


Gure lantxo honen asmoa, zientzien irakasketarako ideia praktiko batzuk ematea da. Esperientzietarako materiala, nola bildu, nola gorde eta nola erabili: animaliak, landareak, arroak eta abar. Gai batzuk aztertu ahal izateko, liburu batzuen izenak ere emango ditugu. Animaliekin hasiko gara, beraz. Hau ikasteko materiala ikusi baino lehen, animalien funtzionamentuetaz ideia orokor bat ematea garrantzizkoa dela iruditzen zaiku.

Gehienetan animalien zati edo apailu bakoitzatza gauza berezi bat bezala ikusten da. Arnasbidea, egoskina, odolbidea eta ab. bakarka ikasten dira, guztien artean dauden har-emanak ongi adierazi gabe eta dena sistema oso eta bakarra dela ulertu gabe.

Har-eman hau hobeto adierazteko eskema bat egin dugu.

Eskema hau haurrentzat ulergaitza da eta ez da ttikiei behintzat erakusteko, baizik guretzako.

Hau da, geuk aurrean eduki behar dugu erakusteko garaian.





Gorputza miloika zelulek osatzen dute. Zelula hauek janaria eta oxigenoa behar dituzte, eta, noski, inguruetatik hartu behar.

Hauek, erabili ondoran sortzen diran zikinkeriak, kanpora botatzen dituzte. Beharrezkoa dute, beraz, inguru horietan, beti, behar haina janari eta oxigeno izatea, eta gainera, zikinkeria hoik nolabait bere inguruan ez pilatzea.

Zikinkeria artean anhidrido karbonikoa dago. Hauek zelula inguruetara ekarri eta eramateko tutu batzuek daude bere isurkaiarekin.

Gainera, isurkai hau mugitzeko motor bat behar da. Bihotza dugu motorra eta odolbidea tutu hauk. Erdian agertzen den tutu hertsia hori.

Nola hel daiteke janaria eta oxigenoa? Eta nola kendu zikinkeriak?

- Janariak dizkio egoskinak ematen. Ahotik janariak hartzen ditugu eta hesteetan barna iragan ohi dira odolera. Iragan ezin direnak kanpora

botatzen ditugu. Hemen egiten dena ez da, beraz, inauspena edo exkrezioa, hondakin hauk ez baita dator zeluletatik, erabili ezin diren janariak besterik ez dira-eta

-Oxigenoa berriz arnasbideak ekartzen dio odolari. Haize edo uretan nahastua, biriketara (lehorrean bizi direnetan); edo zakatzetara (uretan bizi direnetan) heltzen da eta hau odolera doha.

Arnasak, gainera, dakarren anhidrido karbonikoa kentzen dio odolari. Baina kanpotik datorren haize edo urak ez dakar oxigenoa bakarrik, ez-eta ere ateratzen denak anhidrido karbonikoa bakarrik. Baizik, datorrenak, ateratzen denak baino oxigeno gehiago, eta anhidrido karboniko gutiago du.

Arnas bidea, beraz, iragazkin bat ere bada.

-Beste zikinkeriak, nola kentzen zaizkio odolari? Iragazkinaren bitartez. Odola giltzurritara heltzen delarik, hauek filtro baten gisan,



gehiegi doan urarekin na- Kirioak direla medio  
 hastuta hartzen diote eta eta hauek agintzen dutela  
 gernu edo piz itxuran kan rik burutzen dira lan -  
 pora botatzen dugu. guzti hauk.

Eskema honek hezurdun guztientzat balio du.

=====

Eskemaren ikurrak:

Ze: Zelula	CO <sub>2</sub> : anhidrido karboni ko.
O <sub>2</sub> : Oxijeno	O : Odola
J : Janariak	U : urdaila
B : Bihotza	BI : birika
K : Kaka	Ge : gernu
G : Giltzurina	L : larru
Z : Zikinkeriak	H : hestea
	Ki : kirioak

Kulatz lerroak: sarrera eta irteera lekua.

Iruñako.



39

# OINATIKO HERRI HONETAN BEGIRA EBIN DUBUNAREN BERRI

Gabonari begira joan diren urteetako errealitatea ikusirik, kezkatu ginen eta juntari hiru puntutan oinarriturik azaldu genion.

- a) Haurra egizale
- b) Haurraren beharrak
- d) Eguna aldatzea.

Juntak osoki onartu zuen eta orduan baikoitzak geure haurren gurasoei errege kanpaina auzaltzen hasi ginen. Denak onartu zuten eguna aldatzea, material egokia ipintzea, guk material berezia ekartzea eta abar. Baina batzuei, haurrei egia esatea ez zitzaien ongi iduritzen.

Gai hau azaldu ondoren nola egin sortu zen, hau da: Herri-mailan edo ikastola-mailan. Hemen, ikusten genuen, ez dabiltzan haurrak, zer? baztertu? Honi begira herri-mailan egitea erabaki genuen. Hau egin ondoren lanean hasi ginen. Batzuek Oñatz-elkarteekin har-emanetan jarri ziren. Elkarrekin, lan pilo bat egiteko zegoela ikusi zuten. Esate baterako: Erregeetako kabalgata kendu, beste zentroetako maisu-maistra eta monjekin egon, hitzaldi bat herri-mailan eman, gabon egunean zer egin, etab.

Nola hau dena gure esku gelditu zen eta Oñatz-elkartea laguntzeko gertu. Guztiok lana banatu eta hasi ginen.

Erantzuna, hau izan da: Hitzaldian jendearen aldetik erantzun kaxkarra; Gabon egunean Olen-tzaroren eta jaiotzaren atzetik haurrak eta herriko korala abesten ibili ziren.

Jostailuak ongi saldu dira eta opariak gehien bat Gabon egunez eman zaizkie.




Nahiz gure asmoa herri-mailan egitea izan, hitzaldian, jostailuak ikusten eta Gabon egunean, ikastolatik at dagoen jendeak ez du deus parte hartu. Bestalde aurkako kritika izan dugu, gehiena ikastolatik kanpora dagoen jendeak eginga.

Esperientzia honek gauza honik ere ekarri dauku. Horrela, gurasoekin har-emanak gehitze ko bidea izan dugu. Baita ere ikus ahal izan dugu berak haurren beharrei zer garrantzi ematen dien. Azkeneko hau triste da, baina uste dugu har-eman hauek zerbaitetan lagunduko ziela.

Itziar Usandizaga.

Arduradunen oharra:

Aldizkariaren lehengo zenbakia aski horritua zenez, ezin eman ahal izan zen.





# IRAKU EN IRITZIAK <sup>42</sup>

## HAURRIDIKOEI

Ihaz bezala egin du zute aurten ere "Errege kanpaina" deritzana.

Idazkian agertzen diren zenbait puntu argi tzea komeni dela iduritzen zait oso nahasiak agertzen bait dira,agian, ixurtzen diren kriterio batzuen arrazoinak ematen ez dituzuelako, honela iritzi merke batzuk besterik ez diren inpresioa utziaz:

1.- "...Gabonaldian egiten diren oporrak ez bait dira haurraren eskakizunari erantzuteko eginko zerbait, baizik programan eraturik dagoen bezala ohitura-legez ematen diren jaiak..."

Zer kondizio bete behar dute oporrak egokiak izateko?

Zer alde dago Gabon oporraldia eta Aste-Santu edo udarakoen artean?

2.- "Beraz, garaia da azalezko ospaketa hauek hautsi eta benetasunapur batez jokatzeko. Honela, Gabon-gauean jostailuak ezkainiz gero..."

Zer erlazio dauka azalezko ospaketa hauk hausteak, Errege-erregalu, Gabon-erregalu bihurtzearekin?

3.- Jostailu arazo hau Gabonaldian hain garrantzizkoa bada, berdin izango da beste oporraldi guzietan ez da?

Orduan zergatik orain eta garai honetarako enfoket hutsarekin egin?

4.-Haurrek kidetasunean hezitzeko, zer ikusi dauka jostailuak Gabonetan ala Erregetan eskaintzarekin?

5.-Eta azkenik punturik garrantzitsuena heziketari buruzko kriterio nagusi bat delako.

"...Honela galtzen duen hamabostaldi honek (Errege-erregalu zai) garrantzia handia du haurraren bizitzan..."

Zergatik dira hain garrantzia handikoak egun horiek?

Benetan uste ahal duzute haurraren egunak alfer-



rrik galtzen direla, jostailu egin batzuek, naiz-ta hezitzaileak deitu, eskuartean ez badituzte?

Beraz, zuen ustez haurraren desarroiloaren ardatza jostailua da?

Orduan, haurraren bizitzak ez du garrantziarik edo-ta haurra jostailu hezitzaileekin jostatzen denean bakarrik da bizi?

Konklusio horiek ateratzen dira behintzat.

Ihaz ere gauza bera esan zenuten. Saiatu nintzen, jostailuei buruz Decroly eta Freinet pedagogo handien iritziak agertzen. Ikusten dut etzuela ezertarako balio izan.

Zergatik?

Ateratzen ditudan konklusioak zuen iritziekin bat datozelako?

Jakin nahi nuke.

E. Senosiain

Arduradunen oharra:

Urtarrileko zenbakian ezin izan genuen argitara eman, ez bait zitekeen. Hona oraingoan beranduxko, bederen.



## IBLIRIAK

Editions

Jules Celma. Journal d'un educateur. Champs Libre.

68-69-ko ikastaroan, suprente gisa, eskola-lanetan aritua nauzue. Ez nintzen eta ez naiz, egun ere, pedagogia alorrean espezialista bat. Ni hemen nere esperientziaren berri ematera besterik ez natorkizue.

Guk, ene ikasleek eta neronek, batzuetan gauza ederrak lortu ditugu, beste batzuetan berriz, ez hainbeste. Ez bait gara gure alienazioa gainditzera heldu. Ideologia domeinanteak (eta hau ideologia oro-ren betebeharra denez), gu guztiok azken zokoetaraino, markatu gaitu, oso aztarren iraunkorrek utzi dauz kigu. Ez dut inoiz, bizi genuen giroa, sistematikoki eskribatu. Bizitzaren zurrumbiloan murgildurik ginelako, gure harremanak nola aldatzen ziren harri eta zur egonik, guztiz ezina zitzaigun.

Badakit, gertakizun baten berri idatziz ematea, esperientzia bat eraberritzeko saiakera bat dela, esperientzia bera inoiz ere berbiztuko ez duena. Kritikak, ene lan honi akats ugari aurkituko badiote ere, ez dute bizitz-indarrari mugarik jartzetik ukanen.

Garbi adierazi nahi dudana zera da: nere kritika ez dudala eskola eraketaren mailara, edo sexual-pobreziaren alorrera mugatu nahi. Gure bizitzaren alderdi xehenak eta bitxienak ere, AGINTEAREN zigorpean, bizirik ez-baina, hil zorian datzatela derizkit.

Irakaskintza giroa dut batipat ezaguna eta eskolak oro berdinak ez izanik ere, egiazki ikasle gizagaxoen mataderoak bihurtu ditugu, eta kirats dario te. Gizartean sartzeko xertatzea, jendea sailean dator honera. Gerora eskainiko zaizkion moldeetan sar



tzeko aski landua dagoela argi ikus dadinean,hots, HEZIKETAREN bataio hartzera makur dadinean,norat jo, berak hauta beza. Toki goibel hauk,dozilitatearen e liza hauk,morrontza tresna hauk,egun ere,liluratu rik dadukaten irakasleen eta gurasoen multzoa konta ezina da.

Gure gizarte honetan jendea bi taldetan bana tzen da:Nagusiak eta morroiak,indartsuak eta ahulak, irabazle eta galtzaileak.Batzuek heziketa bidez na gusi,besteak ostera morroi eginen dira.

Heziketak jendea apaldu,kokildu,reprimitu egi ten du. Ikasle guztien nahiak berdintzen eta ezaba tzen ahalegintzen da. Guztien jokabidea egoki zaion alderdira bihurritzeko eskubidea duen artean,egungo gizarte honen zutabe sendoa,nagusigoaren garantia tinkoa da.

Irakaslea poliziarekiko,zola ornetarakoentzat bezalatsu gertatzen da. AGINTEAK irakaskintza erdi tzen du,irakaskintzak ordainez agintea.

Irakasle eta hezitzaile-taldea hobeki ezagutzen nohan heinean konklusio honetara heldu naiz:

*Kapitalista nahiz burokrata-gizarte honek bizi rik irauten badu,hezitzaile eta irakasle hainitzen oharkabeko ekintza negargarriari eskerrak eman be har dizkio. Poliziaren represioari baino areago ere, hezitzaileen represioari,zor dio. Hezitzailea "AGIN TEAREN ABOTSA;EZ BESTERIK DUGU".*

\*\*\*\*\*

Eskola,lantegiaren egon-gela da. Gizartearen a rima ene ustez,produkzioa gorputzat duelarik. Esko lako ateetatik igarotzen den ikasle guztien izaera AGINTEAK,deformatu,ahuldu,biguindu,moteldu eta esa neko egiten du. Guzti hau gizartearen mailaketa ez berdinetan sartu eta aseturik gera dadin. Aginteak bere jarraipena seguratzeko,eskurakoi eta mendera-e



rraz den jendea behar du. Etxe-guraso zintzoak langile porrokatuak behar ditu. Beren morrontzari eustearren lehertuko liraken beharrezko zaizkio eta idoro egiten ditu. Xintik atera gabe sufritzeko gai diren giza-emakumeak, isiltasunean hustelduko bada ere hitzik aterako ez duen pertsona-mota prestatzen du.

Ez bedi inor engaina, eskola gure garaian, beharrezko eta merke bihurtu bada, burgesiaren interesek hala eskatzen dutelako da. Kapitalista eboluzioak, teknikaz jantzitako langileak eskatzen zituen bezala, egun profesionalak eskatzen ditu. Irakaskintza - hobetzearen funtsezko arrazoia ez da inola ere, "kultura herrikoia" zabaltzea, ez eta jendearen "kultural-maila" jasotzea.

Ikasleek eskolatan gogoz nahiz gogoz kontra onartu behar duten edari pozoidunen pieza nagusiak, gezurra menpekotasuna eta nazismoa dira. Eskoletan ez da deus ikasten ikasteko gogoia galtzea ez bada. Guretako edonork esan dezakeenez "ikasitugun apurra, den-dena eskolaz kanpo ikasia dugu. Zenbat miloi pertsona izorratu ote dira eskoletako "fundizioetan"? Zenbat gaixo sortu eta kontserbatu da eskoletako hizozgailuetan? Nolako lasaitasuna agintearentzat hain gogor domatutako langileak?

Bizitzako gauza ederrenak: gauza berriak egiteko eta sortzeko egarria, maitasun-sua eta abar... bizitzaren bildu eta moteltasun goibel bilakatu ditu.

Bakoitzak atzera so eginez bere oroimenetan arraka beza eta zer ikusiko du: sufrimendua, era guztietako humiliazioak, bizitz-edertasunaren mugatzea, barkarde tristea. Dena disziplinaren gogorra dastatzeko eta edozertaz lotsaz beterik hitz egiteko. Zenbaitek esanen du: Hala da bai bainan bizitza hala da. Normala da. Ez dut damurik eskolan pasatzeaz.

\*\*\*\*\*



IRAKASLEOK! Zuen lanaz agintea oso pozik da! Bere mirespina eta esker ona irabazia duzue! Orain arte topatu dudan egoerarik hustelduena, kontserbadoreena, mugatuena, zuena izan da!

Irakasle eta profesoreek, ez dute kezka garbirik, burrukari uko egiten diote. Dena mekanikoki egiten dute. Aurrean dituzten pertsona biziak baita lirakeen, martxan jarriaz nahiz geratuaz aski dute. Planifikazio zehatz baten mugetara biltzen ez denak gaizki beharko du.

Gehientsuenetan egindako planak ez dira osorik betetzen, baina hau ez da harrigarri. Ikasle asko eta askok ez baita du ikasteko benetako gogorik eskolara ekartzen. "Beti jostatzeko prest dira, sarritan entzuten dugu. Egunen buruan irakasleok lanaren zama astuna, sentitzen dugu" esanen daukute. Lan nekeza benetan irakasleona, diote, elkar kontsolatu nahirik! Heziketa lanak pertsona ahitu eta erre egiten du. Betozte hainbeste hitz egiten dutenek eta egun bat lan honetan eman ondoren hitz egiteko gogoak kenduko zaie.

\* \* \*

Sei orduz egunero eskolako aulkietan eserita, beti besteek esana egiten, beti irakaslea pozik edukitzeko tranpak asmatzen saiatu behar duen talde bat domatzea ez da batere erraz izanen. Ikasleen bizkortasunari eta indar biziei eustea zail izanen dela bistan da. Halere badira, tarteka ikastaldi bereziak, eta haietan hain zuzen irakasleek, ikasle zailenak errenditzeko azkeneko asmakariez jabetuko dira.

Heziketaren helburua seinalatuko duen eredu-imitagarria irakaslea izan ohi da. Hau agintearen gogoko izateko, eta gizarteko ateak zaba-zabal edukitzea biderik egokiena baita da.



Imitatu behar den irakasle hau nor dugu ordea? Gizon bikoitza bera, hots, bere bizitza pribatu eta profesionalaren arteko lotura egin ahal izateko gorrriak ikusi beharrean aurkitzen dena.

Bere ikasleen aurrean giza-eredu agertu behar du. Bere jazkeran, bere hizkeran, bere gesto guztietan akatsik gabea. Hobeto esan akatsak ongi gordetzeko burruka gogorra bere buruari egin behar dion gizona. Gizon hotza, haserretzen ez dena. Bigunduko duen gauza bakarra, behar bada, sari-jasotzearen albiristea izan da. Labur esateko, bere bizitza higie aldetik errugabe da, era guztietako represioak sofritzen baditu ere.

\*\*\*\*\*

Aita "AGINTEAK" eta ama "IDEOLOGIAK" irentsi egin dute. Itxaropen guztiak galduak ditu, jende gehiena bezala etsita bizi da. Bere etxe-automobil eta gainerako edergailuak baditu eta problema handirik gabe bizi da.

Arratsean ikas-gela husten denean, bere aurpegi an satisfakzioa nabari da. Bere indar-eragilerik nagusiena bere nagusiei erantzun beharretik datorki o. Kontzientzia lasai az lo egin dezake ezen bere ikasleatarik %90 esaminetan ongi aterako direlakoan.

Bizi-bizirik iraun-erazten dion indarrik eragin korrena, bere ikasleen aurka egin behar duen amaigabeko burruka da. Burruka honi aurre emanaz nazioari bere zerbitzuak ezkaintzen dizkio. Ondoren atsedena dia emanen dote. Bere ofizioa maitatzera iritxiko da.

AGINTEAREN ZAKUR BAT BILAKATU DA.

Era honetako morroiak egungo gizonak prestatzen dituzte, hauek berebat hurrengoak prestatzen. Azpi-joko beldurgarri honen emana, bizitza ito-




tzeko saio negargarri honen ondoren zera dugu: "masa", "publiko eritzia", "jende formala", "langile zintzoak", nazioaren alde "hiltzeko prest diren gudari kementsuak", "telebistaz bizitzeko hutsuneak beteko dituztenak".

Gizarte hau prestatu duten eta antolatzen ari diren erakundeen artean, irakasleen zerrenda luzea garrantzitsuenetako bat da. Denek goitik datorkien doinura dantzatzeko dira.

Pentsaera robot bat duen jende hainitzek eskola-erakundeetan ez du itxaropenik galdu. Honengatik eskaintzen dizkiet lerro hauk batipat eskolaren jopu diren guztiei:

Pertsona handiak beti arrazoidun direla pentsatzen duten zozo guztiei, egunero, mila aldiz, slogan nazistak entzun eta irentsi beharrean aurkitzen diren haur gizagaxoei, slogan hauen aurrean ez amore emateko kemenik ukan dezaten! zenbat aldiz modu honetako slogan piloak? "Iritzirik emateko heldutasunik ez duzue eta isil zaitetze". "Ez diozu horrela zure aitari erantzun behar". "Eskerrak eman zure aitari". "Jostatzera lanak amaitu ondoren johanen zara"





# DIN DAN ... BOKERAN

## 1) KIDE.-

Gogotik ikusi dugu Iruñean hasi bide den ikastola-materialaren denda. Aski egoki muntatua duten saltegia bera. "KIDE" du izena. Eta zenbait gurasoren laguntza ona ukan dutenez, ez zaie Donostian "HAURRIDE"-ren hasia izan zen eta den bezain lan gaitza gertatu. Esan beharrik, hagitz pozten gaituela albiriste honek. Zerbitzu galanta egin le zaie Nafarroan ikastola eta... ikastetxeei. Inoiz bisitatu nahi izanez gero, Gorriti karrika 27an dardukazu. Gure goresmenak.

\*\*\*\*\*

## 2) IKASTOLA EGUTEGIA

Bidasoaz handiko ikastolen antolamenduz arduraturik den "Sehaska" elkarteak eman du argitara. Aski soil da, baina bai gauza xukun eta fina ere. Ez da harritzeko, haiek duten ukitu berezia go-goan badugu. Bestalde, nola astearen egunak hala urteko hilabeteenak euskara batuan datoz. Beraz, gisa horretan emaniko liburu eta argitalbenak behar ditugu; hots, han edo bizkaitarrek argitaratzen dutenak zerbi dezala gipuzkoarrentzat, eta aitzitik, berdin. Garestia dela iduri du, eta hala da, baina ez da prezioa ordainez ematen dena, iparraldeko ikastolak sostengatzeko eskaintzen den oparia baizik.

\*\*\*\*\*

## 3) GURASOEKIN HAR-EMANETAN

Gipuzkoar "talde" berezi baten monopolioa urratu ordukoxe, da berriro irakasleok gurasoekiko



dadukagun eginkizuna planteatu. Egia, Gipuzkoan ere lehendanik hasia zen lan hau, baina bailaretako gurasoekin egiten diren bilkurak, errege-kanpaina, etab. dela medio, mugida berria hartu du arnas gazte bat biztu balitz bezala. Hori horrela, denok ari gara geure arteko prolema sakon batetaz jabetzen. Zenba ki honetan berean, gorago, bada artikulo bat edo beste arazo hau aipatzen duelarik. Dena dela, informazio sailean, ordea, besterik aipatu nahi genuke. Alegia, han-hemenka herri multzo batetan irakasleak hasia duten lana, ez bakarrik batzordeko diren gurasoekin, baita irakasle edo andereño bakoitzak bere ikasgelan dituen haurren gurasoei buruz ere. Zer jokabide egokia den haurren gurasoak bildu eta hauekin haurren prolemak aipatzea eta aldi berean zenbait puntu elkarrekin ikastea edo irakastea. Hau da bidea. Organizazio mailan, nahiz bailarak, nahiz gorago, Bizkaiak du esperientziarik aberatsena. Ea bizkaitarren batek ematen daukun arazo hau harrotu az artikuloren bat datorren edo hurrengo zenbakian.

\*\*\*\*\*

### BILINGUISMOARI BURUZ.

Hitzaldi bat entzunik dugu Tolosan, urtar-  
rrilaren hogeia eta zazpian hain xuxen. Goi eta behe aski beterik zen jendez Iparagirre antzokia. Urrutia jesuitak planteatu zuen lehenik zer-nola dagoen bilinguismoa legearen aldetik "Oinarrizko Irakaskintza" delakoaren kontestean. Aski ongi salatu zioten honen aurreko egoeraren hutsuneak. Bestalde, oraingoak lege aldetik guztizkoa izan ez arren, badu alde onik asko. Dena dela, lege berri hau lehenarekin konparatuz, zion, ez dohala politikaz kutsaturik, bederen lege mailan. Halere, besterik da arazoa burokrazia eta administrazio mailan dagoen jendea eta hor diren oztopoak ikusirik.

\*\*&\*&\*&\*&\*&\*&\*&\*&\*&\*



Mahain borobila osatzen zutenek:galdera praktikoak egin zizkion,adibidez,I.Linazasorok;Bilinguismoa eta sikologia aipatu zuen Joseba Insaustik;Herriaren ahotsa eta beronek bizi dituen kezka edo zalantzak adierazi zituen Joxe Gastesik;eta azkenik,Mari Karmen Altzuetak,Donostiako Lizeoko zuzendari denak,eman zuen laburki bere esperientziaren berri. Gure ustez,ez da puntta-punttako gauza,baina ez litzake kaltezko izanen gisa horretako ihardunen bat bailara batzuetan antolatzea ikastolako edo ikastolako ez den jendearentzat.

\*\*\*\*\*

### 5) ORMAIZTEGI.-

Bada duda-muda frango aspaldian goiherriko herri honetan. Zer gertatzen den? Zera,ikastola,esan dezagun,"jauntxo" batzuek hasi eta hauek aurrera eramán dutela orain arte,honek berekin daramatzin alde on eta txar guztiekin. Norberak dena egiten duenean,ez dio besteri deus egiteko lekuri ematen,baina borondate onenarekin hau gertaturik ere,ez da inola herria ardura dadin sistimarik onena. Eginaz ikasten da egiten eta...egiteko gai izaten. Hargatik,herria (gurasoak kasu honetan)ekin tzara johan dadin laguntzen duena. herria egiten ari da,baina bestenaz jokutzen dutenek,herriari bere jasokuntzan trabak ipini baizik ez dute egiten. Nolanahi ere ondorio onik ez dakarren jokabidea luzarora. Ikus besterik herri honetako kasua,gure ustez.

B E R R I K E T A R I







